

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA
Hirigintza
hobekuntza plana /08

KIROLA
Kirol sailaren
eskutik eskiatzera/09

LEINTZ GATZAGA
Gabonei errepassoa
argazkitan/10



IGERILEKURA!


ESKAINZA ZABALDU DUTE ETA BAITA UME TXIKIENDAKO IKASTAROAK ANTOLATU ERE

ASTEKO GAIA: KULTURA ETXEA EGITEKO PROIEKTUA/4 • KIROLAK: JOKIN ANTXIARI ELKARRIZKETA/6

ATREBENTZIAEZPADA/ Rebajetara fateko asmoik badauketzu? Zer erosi dozu?



RESU ARETXAGA
etxeakoandrie



PABLO VELASCO
langillie



ANA RUIZ
langillie



ROBERTO TAPIA
langillie



NOELIA LOPEZ
langillie



IMANOL SORIANO
langillie

Ez dauket rebajetara fateko asmoik, erropa nahikue dauket eta. Lehen faten nitzen, baiñe oin ez dot hainbeste erropa biher. Azkenien, txandalaz eta nabil gustoren.

Iñundik iñora ez naz rebajetara fango, ez dauket erropa biherrik eta. Zeozer biher izenez gero fango nitzake, baiñe ez dot ezer biher. Uste dot jentiek pensau barik erosten dauela.


Bai, umiendako erropie erosteko asmue dauket eta niretako fraka batzuk edo. Aurten denda askotan erdi prezien ikusi dot erropie, eta uste dot aurten gutxi saldu dauela.

Bai, izen naz rebajetan. Fan dan aste bukaeran Bilbon izen gitzen, eta jente asko ebillen erropak erosten. Nik gauza pare bat erosi nittuen, baiñe nere nobixiek askoz gehixau.

Ondiokan ez naz fan rebajetara, baiñe asmue badauket. Aste bukaeran edo datorren astien fango naz Mondrauera edo Vittorixara. Ez dakit zer erosi, lelengo zer dauen ikusiko dot.

Beti azken momenturako ixten dot lan hori, eta aurten be berandu ibilliko naz. Asmue badauket, eta bihera be bai. Zapatilla batzuk eta erropie erosteko bihera dauket.

TXALOKETATXISTUAK



TXISTUAK ORDUTEGIA URRUTI SAMAR Kostata baina jarri dute ordutegia autobus geltokian. Hori bai, lagun batek esan digunez, urruti samar jarri dute eta bista onarekin joatea beharrezkoa da ordutegia ikusi nahi bada. Bien bitartean, aste honetan hasi dira markesina jartzen, beraz, behin berria eginda ordutegiak ere toki hobeia izango duela uste dugu. /MARIA AGIRRE

ETABARRUAN...

KULTURA /04

KIROLA/06

BIDAIA /07

Kultura etxe berria egiten

Apirilean hasiko dira kultura etxe berria eraikitzen herriko plazan. Egun dagoena bota egingo dute.

Frontenis masterra

Debagoieneko frontenis masterra jokatu da asteburuan herriko kirol etxean.

Polonia ezagutzuz

Jose Luis Zubiria Poloniara joan da, eta harekin berba egin dugu Polonia zelakoa den jakiteko.

ASTEKODATUA

4

XAKE JOKALARIK HASIKO DUTE EUSKAL LIGA

Herriko lau xake jokalarik jokatuko dute Euskal Ligako txapelketa bihartik aurrera. Fran eta Andoni Miguel, Aitor Alcaide, Esteban Romero eta Joseba Altubek ordezkaturiko dute herria.


BESTEKEKESANA

“Etxetik gertu Caia kooperatiba dago, eta bertan egiten dut lan. Kooperatiba horri diruz laguntzen diote

Aretxabaletako Hiruatz elkarteak eta Markinako Munduzabalek. Mundukide elkarteak, berriz, aholkularitza teknikoak ematen du. Zortzi lagun ari gara Caian lanean. Ni bat gehiago naiz talde horretan, eta denetarik egiten dut: oilaskoak lumatu, gestio lanak egin... Caia kooperatiban jarduera bi ditugu: txerri eta oiloendako pentsua ekoizten dugu, eta oilaskoak hazi eta saldu ere egiten ditugu. Hilean 1.800 oilasko inguru saltzen dugu. Artoa ereiten duen edonori artoa erosten zaio. Beste batzuei saltzeko aukera badute, baina guk ez diegu iruzurrik egiten, ez artoa pisatzera-koan ezta erosterakoan ere”

IBON ANTERO
‘ASTELEHENEKO GOIENKARIA’/05-01-10

HERRITARRENBERBAK/ Jon Molina



Europako “konstituzio” berriari buruz...

Nire ezjakintasuna aitortu beharra daukat: ez dakit deus ere Europar Batasuneko “Konstituzio” berriari buruz. Ez da denbora asko gure gobernu buruek Erroman “Konstituzio” berria sinatu dutela; baina, egia esan, guztiz arrotz zait Europar Batasuneko biztanleontzat berebiziko garrantzia omen duen oinarriko lege berria. Ez dakit norbanakooi nola eragingo digun geure eguneroko bizitzan; ez dakit zer ondorio izan ditzaken Euskal Herriarentzat; ez dakit gurera etorri nahi duten etorkinentzat zer baldintza (oztopo?) ezarriko dituen... ez dakit ezertxo ere... Susmoa daukat, ordea, (eta aitortzen dut kontsolatu ere kontsolatzen nauela) Europar “Konstituzioari” buruzko ezjakintasuna hedatua dagoela. Entzun al diozue inori gai honi buruzko komentariarik? Hain garrantzitsua izanik, zuen inguruko norbait poztu (edo kezkatu, edo haserretu...) al da

“Konstituzio” berria dugulako? Harrigarria da hainbeste axolagabekeria. Egoera bitxia, datorren hilean “Konstituzio” horri buruzko iritzia ematera deituak gaudela kontutan izaten badugu. Konstituzioari “baitz” esanez gero, ba ote dakigu zeri ematen diogun oniritzia? “Ezetz” bozkatur gero, berriz, zer da onartzen ez duguna? Nik neuk ez dakit. Gainontzeko hiritarren iritzia nirea baino “ilustratua” goa” ez bada, ez du asko balio. Erreferendum xelebrea izango da otsailekoa. Eta bitartean, non daude gure “osasun demokratikoak” hainbeste arduratzen direnak? Zer erakunderi dagokio modu argian (eta garbian) gu eskolatzeari? Baietzaren nahiz ezetzaren aldeko alderdi politikoez al dute beraien jarrera gehixeko azaldu behar? Hilabete falta da. Azkar ez badira ibiltzen ni ez naiz botoa ematera joango. Ez nuke jakingo zer txartel sartu sobrean.

“Baitz esanez gero, ba ote dakigu zeri ematen diogun oniritzia? Ezetz bozkatur gero, zer da onartzen ez duguna?”



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Barrixen barri

Urte barri, asmo barri. Holan dixo esaera batek, eta tipikue izen arren, ondo etorri jat zutabie hasteko.

Olentzerok boligrafo barrixe ekarri dozt idazten jarraitetako. Ordenadorie? Itxura danez ez naz ondo portau, holako erregaloik ez dot jaso baiñe berdin dutzo.

Batzuk etorri eta beste batzuk fan, holan hasi da urtie. **Irati Pagoaga**, Aretxagazetan idazten dauen kolaboratzaillie Galesera fan da, praktikak egittera hango eskola baten. Eskerrak Gales berdie izengo dana, bestela Arientzako parajiek faltan botako dittu eta. **Mirari Altube**, barriz, bueltan dator. Umie eukittiarren emuten dittuen "oporrak" bukatu eta lanera bueltauko da barriro. **Ziortza Martin**, Aretxagazetako publizistie, barriz, umie hazten dabil. Abenduen euki euen umie, eta kontau duztienez oso morenue eta pollitte da mutile.

Astien kendu dittue kaletik Gabonetako argi eta konplementuek. Egixe esan baneuken gogue normalidadera bueltetako, hainbeste turroi eta txanpenek apur bat kalte egin duztie eta. Eta nik neuk be jarri dutzet lana neuri buruei: astien behin Urkulura fan, liburu bat leiru hillien behin, eta igeri egitten ikesi. Ezta gutxi!

KULTURA/ Apirilean hasiko dira herriko plazan kultura etxe berria egiten

Datorren astean aurkeztuko da kultura etxe berriko proiektua

MARIA AGIRRE

Aurten hasiko dira kultura etxe berria egiten herriko plazan. Dagoena bota, eta berria egingo dute. Datorren astean **Alberto Sanz** arkitektoak behin betiko proiektua aurkeztuko du, eta horren ondoren osoko bilkurak proiektua onartu eta obrak hasiko dira.

Aretxabaletako Udalaren egitasmoetan, kultura etxe berriak garrantzia izango du aurten. Hori dela eta, hil amaieran onartuko diren aurrekontuetan diru zati garrantzitsua zuzenduko da kultura etxe berrirako. Nahiz eta Jaurlaritzatik eta Diputaziotik ez den dirulaguntzarik jasoko kultura etxe berria egiteko, Udalak bere gain hartuko du proiektuaren kostua.

APIRILEAN HASIKO DIRA LANAK

Kultura etxe berriko proiektua aurreratuta dago, eta datorren astean **Alberto Sanz** arkitektoak behin betiko proiektua aurkeztuko du Udalean. Proiektua bukatuta, epe bat izango da azken orduko aldaketak egiteko, eta hil bukaeran egingo den osoko bilkuran onartzeko asmoa dute. Behin onartuta, lanak adjudikatu eta apirilean hasi nahi dute eraikin berria egiten. Gaur egun herriko plazan dagoen kultura etxea bota egingo dute, eta berria eraikiko dute. Berriak, gainera, solairu bat gehiago izango du.

Kultura etxe berrian egongo dira musika eskola, liburutegia, ekintzetarako areto bat, gazteleku eta gaur egun kultura etxean dauden gainontzeko gelak, hau da, bulegoak, pintura gela eta bilera gela, besteak beste. Liburutegia beste era batean antolatu nahi dute, nagusiendako, gazteendako eta haurrendako guneak izango baitira. Aretoak, berriz, 80 lagunendako tokia izango du eta bertan hainbat ekintza egiteko aukera eskainiko dute.

ORAIN, BESTE BULEGO BATZUK

Kultura etxe berria egingo dutela eta, Udala berehala hasiko da



MIRARI ALTUBE

Berria egin bitartean etxabe horietan egokituko dira kultura eskaintzetarako gelak.

bulegoak egokitzen, gaur egungo zerbitzuak eskaini daitezzen lanek irauten duten bitartean. Hain justu, Beroa lantegia zégoen orubean egin diren etxebizitza berrien etxabeetan hainbat lokal ditu Udalak, eta bertan egokituko dira bulegoak, esan bezala gaur egungo eskaintzak egon daitezzen. Kultura Saileko bulegoak, esaterako, bertan izango dira apiriletik aurrera.

HIRU MILIOI ETA ERDI EURO

Udalaren aurrekontuetan inbertsioak izango du garrantzia, eta kultura etxeo proiektuari eman go diote lehentasuna. Izan ere, hiru milioi eta erdi euro behar ko dira kultura etxea egiteko. Hori dela eta, kredituak eskatuko ditu Udalak. Hala ere, dirulaguntzen arloari ez zaio aterik itxiko, eta batean eta bestean jarraituko dute dirulaguntza eske.

Aurten lanak hasi, eta 2006ko amaieran bukatuta egongo direla uste dute Aretxabaletako Udaleko arduradunek.

AUDITORIOAREN ASMOA LANTZEN HASI

Kultura etxe berriak, baina, ez die herriaren asmo guztiei erantzungo, eta aurtengo aurrekontuetan dirulaguntza onartuko dute auditorioaren proiektua lantzen hasteko. Auditorioa non egin, zenbat lagunendako tokia izango duen eta zelan egingo den aztertuko dute udaltxean. Izan ere, auditorioan egongo dira kontzertu eta abarretarako aretoak, eta horietan jende gehiagorendako tokia izango da. Era horretan, nahiz eta kultura etxea egin, kontzerturen bat egitekotan kirol etxean egin behar ko da. Hala ere, agintaldia bukatu aurretik, auditorioaren proiektua abian jarzea da zinegotzien asmoa.

LABUR

Presoen sakabanaketa bukatzea eskatu

Aretxabaletako udalbatzak euskal presoen sakabanaketa bukatzea eskatu die Espainiako eta Frantziako gobernuiei. Joan den abenduaren 27an osoko bilkura egin zen, Karmele Solagurenen heriotza dela eta, eta PPko zinegotziak ez ezik, gainontzeko alderdietako zinegotziek mozioaren alde bozkatu zuten. PPkoa abstenitu egin zen, PSE-EEkoa ez zen egon, eta mozioa Aralarrek aurkeztu zuten.

Era berean, Solaguren-Gerra familiari doluminak adierazi zizkion udalbatzak, eta gatazka politikoaren ondorioz sufritzen duten pertsona guztien eskubideak errespetatzea eskatu zuten. Karmele Solaguren abenduaren 6an hil zen, Ekain Gerra semeari bisita egitetik zeterrela. Istripu hartan bertan, presoren aita larri zauritu zen.

Etxebizitza soziala egokitu zaienei gutuna bidali diete

Bruesa enpresak eskutitza bidali die etxebizitza sozialen zozketan esku hartu zutenei. Abenduaren 22an egindako zozketaren emaitza ematen zaie ezagutzera gutunean. Hau da, bakoitza zerrendan zenbatgarren dagoen jakinarazten zaie. Lau hilabete barru planoak aurkeztuko dituzte Bruesa enpresakoek, eta orduan joango dira etxebizitza aukeratzeko. Zerrendan lehena dena izango da etxebizitza aukeratu duen lehengoa. Horrela 180.era iritsi arte. Izan ere, Udalak 180 etxebizitza zozketatu zituen joan den abenduan. Beste zazpi elbarriendako utzi ziren, baina batek baino ez duenez izea eman, gainontzeko sei etxebizitzekin zer egin erabakiko dute. Baliteke horiek ere gainontzekoei ematea. Kirol etxetik Lausittara bitartean egingo dira etxe horiek.

Okindegia - Gozotegia

Aretxabaleta

Loramendi 6 • 943 77 17 19
Basabe 2 • 943 77 00 81
Aretxabaleta
Bertako okina

PENSOS
SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABALETA
Tel.943 77 00 33/79 42 56

Mortin
erloju-denda

Bere bezeroen
zerbitzura

Mitarte 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETA

Mobiliario
ARENZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

GAZTERIA/ 12 eta 17 urte bitarteko gazteen aisiladirako proiektua landuko dute

Herriko gazteei zuzendutako eskaintza gertu izan nahi du Udalak uda aurretik

M.A

Herriko gazteen aisialdian hutsune nabarmenak daudela eta, Udalak teknikaria kontratatu du, eta 12-17 urte bitarteko gazteen aisialdirako proiektua lantzen hasi da. Aste honetan, Udaleko zinegotzietan azaldu diete gazteriarri begira zer egiteko asmoa dagoen.

Maidar Etxaniz elgoibartarra da Gazteria Sailean lan egingo duen teknikaria. Dagoeneko hasi da proiektua lantzen, eta uda aurretik 12-17 urte bitarteko gazteen aisialdirako proiektua gertu izango dela espero dute.

Hala ere, asmoa ez da ekintzak antolatzea bakarrik. Gazte horiei aisialdia antolatzen lagundu eta parte-hartze dinamika bultzatzea da helburua. Beraz, proiektua egin ondoren hezitzaile batzuk hartuko dituzte gazte horiekin lan egin dezaten. Gazteak biltzeko toki falta dagoela eta, aurrera begira txoko bat zuzenduko da adin horretako gazteendako.

Joan den astelehenean Udaleko ordezkariak jakinarazi zieten zeintzuk diren Gazteria Sailaren helburuak.

EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLANA

Joan den abenduko osoko bilkuran, bestalde, euskara biziberritzekeko plana onartu zuten zinego-



12 eta 17 urte bitarteko gazteendako proiektua lantzen hasiko dira.

tzien. Xabier Sarasua, Euskara Saileko zinegotziak esan digunez, planaren helburua da euskara arloan herrian lanean ari

diren eragile guztiak elkarlanean jartzea. "Elkarlan dinamika bultzatu nahi dugu, eta hori da planak duen helburua". Hala ere,

familian, eskolan, euskaltegian eta beste arlo batzuetan ere eragingo du onartu berri den planak.

Planak 2008. urtera arte iraungo badu ere, hasi berri dugun urterako gestio plana egin dute Euskara Sailean. Eta hain justu, modu koordinatuan eragile guztiak elkarlanean jartzea izango da aurtengo helburua. Urtebete behar izan dute euskara biziberritzekeko plana egiteko. Herriko hainbat taldek esku hartu dute hausnarketa saioetan, eta guztien artean adostu dute onartu berri den plana.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Emakumeen aurkako indarkeria dela eta, Emakunde aurkeztutako mozioa onartu zen joan den abenduko osoko bilkuran.

Herriko Udalak hartu duen konpromisoaren arabera, emakumeen berdintasunaren alde eta indarkeriaren aurka egingo dute. Bestalde, herriko emakumeak eta bereziki gizonezkoak animatu ditu Udalak indarkeria mota horren aurkako jarrera aktiboa hartzea. Isilik ez geratzea eta biktimei laguntzea eskatu du Udalak. Era berean, azaroaren 25ean, emakumeen aurkako indarkeria salatzeke eguna izaten dela eta, egun horren harira egingo diren ekitaldietan parte hartzeke deia egin du udalbatzak.

LABUR

209 lan aurkeztu Loramendiren literatur lehiaketan

Abenduan bukatu zen Loramendi elkartearen literatur lehiaketan parte hartzeke aukera. Guztira 209 lan jaso dituzte Loramendin, eta hil honetan egingo dute sari banaketa. Urtarrilaren 21ean, datoren egubakoitzean emango dituzte sariak.

Batasunaren zozketa 0691 zenbakiarendako

Aretxabaletako Batasunak otar baten zozketa egin zuen Gabonetan, eta 0691 zenbakiari egokitu zaio saria. Zenbaki horren jabeak Urbaltz tabernara joan behar du otarra jasotzera. Inguruko base-rietako produktuekin osatuta dago otar hori.

Pirritx eta Porrotx ikusten 510 lagun izan ziren zapatuan

Joan den zapatuan Pirritx eta Porrotx pailazoen *Patata patata* ikuskizuna eskaini zuten, eta 510 lagun joan ziren kirol etxera. Umeez gain, gurasoak ere gerturatu ziren pailazoen azken ikuskizuna ikustera.

DROGA-MENPEKOTASUN PLANA ONARTU DU UDALAK

Drogen kontsumoa murriztea izango da helburua hemendik aurrera

Udalak onartu berri du droga menpekotasun plana. Planaren berrikuntza garrantzitsua zera da: aurrerantzean helaraziko den mezua ez dela izango drogarik ez kontsumitzea. Hemendik aurrera beste ideia hau izango dute oinarri: drogak neurritz eta nork bere buruaren jabe izanda kontsumitu behar direla. Drogak aipatzerakoan, alkohola eta tabakoa ere barruan sartzen dira. Sail horretako teknikariak, Miriam Beltran de Herediak, esan digunez, orain arte esku artean zerabilten ideia utopikoa zen. Hau da, drogak ez kontsumitzeke esanez, ez da helburua lortu.

Era berean, Udalak dirulaguntza ematen jarraituko du droga-menpekotasun programaren batean parte hartu nahi dutenentzat. Garraiorako dirulaguntza eman ohi du Udalak. Une honetan lau lagunek jasotzen dute era horretako laguntza. Onartutako planak, bestalde, 2008. urtera arte iraungo du.

ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

Gemes zentroak lehenengo saria


Gabonetako erakusleho lehiaketako lehenengo saria Gemes estetika zentroak jaso du. Bigarrena Zubia oinetako dendarentzat izan da, eta hirugarrena Arenaza altzari dendarentzat. Gemes zentroko lagunak esan digutenez, oso pozik jaso dute saria, baina lehiaketatik beharrean, zentroa edertzeke apaindu zuten Gabon giroan. Kontatu digutenez, Baionara joan ziren zentroa edertzeke apaingarriak erostera, eta hurrengoan ere hala egingo dute.



Gemes zentroak Baionara joan ziren apaingarriak erostera.



MAITE
ILE APAINDEGIA
Sarasate 1 behea
Tel. 943 79 59 05
ARETXABAleta



ITURGINTZA
Nafarroa 8, 2-A
ARETXABAleta
943 79 64 91
605 71 66 92 / 629 47 72 70

BENGOA
URDAITEGIA

Bertako okelak
eta mortzilak

Durana 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

J.J.
IRURE
ITURGINTZA

URA
GASA
KALEFAKZIOA

MITARTE, 15
ARETXABAleta
943 793 187

JOKIN ANTIXIA/UDA ELKARTEKO PRESIDENTEA

"Karate, xake eta areto-futbol modalitateak ere izango ditu UDAk"

M.A

UDA elkarteak atek zabaldu dizkie karate, xake eta areto-futbolari. Horretarako, joan den astean ezohiko batzarra egin zuen UDA elkarteak. Beharrezko aldaketak egin, eta hiru kirol modalitate horiek ere aipatzen dira elkartearen estatutuetan.

Zer dela eta ezohiko batzarra?

Orain arte egon diren estatutuak duela 15 urte onartuta-koak ziren. Eta orduz gero futbola, saskibaloia eta pilota zeuden kirol garrantzitsuenen sailean sartuta. Baina orain, Jaurlaritzak esan digu kirol nagusien taldean kirol bakarra aipatu behar dugula. Horregatik erabaki dugu futbola izatea nagusia, eta besteak bigarren mailakoak. Une honetan futboleko jende gehien dabilelako egin dugu aukeraketa hori.

Baina hemendik aurrera beste kirol batzuei ere zabalduko dizkiezue atek.

Guretzat hori da garrantzitsua. Karate taldekoak etorri zitzaizkigun UDA elkartearen sartzeari komeni zaiela esanez, eta, horrela, estatutuak aldatzerakoan, karate modalitatea sartu dugu. Baina, era berean, xakeari eta areto-futbolari ere aukera eman nahi diegu, eta horiek ere sartu ditugu. Horrek esan nahi du etorkizunean xake taldea izan dezakeela UDAk, besteak beste.

Karatekoek zergatik sartu nahi dute UDA elkartearen?

Une honetan herrian 20 lagun ari dira karatean, baina Arrasateko Saioa gimnasioaren bitartez daude alta hartuta federazioan. Esan ziguten interesatzen zitzaiela UDAk federazioan alta egin, eta elkartearen egotea. Hemendik aurrera Aretxabaletan ordezkatuko dute lehiaketetan, eta herrian ere egingo dira karate txapelketak.

Sari batzuk ematea ere onartu duzue.

Uste dugu kirolariekin eta zuzendaritzako kideekin esker



MARIA AGIRRE

"Orain 20 herritar ari dira karatean. Aurrerantzean herria ordezkatuko dute"

onekoak izan behar dugula. Hori dela eta, horren harira arau batzuk aldatu egin ditugu. Hemendik aurrera, zazpi urte UDAko kirol talderen batean esku hartzen duenari zilarrezko intsignia emango diogu, eta hamar urte betetzen dituenari urrezkoa. Aurten preferenteko bi jokalarik, Kepa Azkuek eta Erikok, jasoko dute urrezko intsignia. Pilotan, berriz, Errasti anaiek ere urrezkoa jasoko dute. Zuzendaritza taldean egon direnei dagokienez, Rafa Etxandia, Jabier Etxeberria eta Iñaki Antxiak jasoko dute urrezkoa, eta Joxe San Migelek pilotakoa.

"Aurten preferenteko bi jokalarik, Kepa Azkuek eta Erikok, jasoko dute urrezko intsignia"

Jokalariei galdetu diegu, eta esan digute horrelako sariak asko motibatzen dutela.

Gainontzean, zer moduz ibili da preferente mailako UDA lehenengo itzulian?

Lehenengo itzulia 25 puntu-ekin bukatu dugu. Emaitza ona da, hasieran ez genukeen halakorik pentsatuko, baina pena ere badugu partidu lelo batzuk galdu ditugulako. Puntu gehiago izan genitzakeen. Oraingo denboraldian ez da arazorik izango. Ni baikorra naiz, eta gainera, aurrera begira bigarren erregionalean ariko den taldea eratuko dugu.

LABUR

Debagoieneko frontenis masterra jokatu da asteburu honetan kirol etxean

Frontenisko hiru txapelketa izan ziren jokoan iaz ibarreko hainbat herritan, eta orain, txapelketa horietako sailkapenekin masterra antolatu dute. Masterra Aretxabaletako kirol etxean jokatu da bihar, zapatua, eta etzi, domeka. Era horretan, Debagoieneko txapelkunak zeintzuk diren jakingo dugu.

Bihar, 09:00etan hasita final-laurdenak izango dira jokoan. Hasteko, Candido Hurtado eta Jose Izquierdok Jose Caballero eta Diego Galanen aurka jokatu dute. Ondoren, Patxi Vallejos eta Xabier Albisua Mikel Del Rio eta Unai Belaustegiren aurka arituko dira. 10:30ean, K. Barkala eta David Bellancok Koldo Mateos eta Igor Carrilloren aurka neurtuko dituzte indarrak. Eta, bukatzeko, 11:15ean, Iñaki Sanchez eta Kepa Garciak aurrez aurre dituzte Eder Arraiz eta Asier Delgado. Finalerdiak, berriz, eguerdian jokatu dira, eta finalak domeka goizean, 10:30ean hasita.

Igeri egiten ikasi edo igeriketa hobetu nahi dutenendako ikastaroa antolatu dute

Aretxabaletako Udaleko Kirol Sailak ikastaroak antolatu ditu igeri egiten ikasi edo igeriketa hobetzeko asmoa dutenendako.

Hastapen ikastaroa astean eta asteburuetan izango da, eta hobe-kuntzara zuzendutako ikastaroak ere astelehenetik domekara bitartean izango dira. Bi kasuetan, talde bakoitzean bost lagun izango dira gutxienez. Abonatuak 13,25 euro ordaindu beharko dute, eta abonatuta ez daudenek 17,70. Ikastaroak goizez eta arratsaldean izango dira.

Baina beste aukerarik ere izango da herriko igerilekuan: aquagym ikastaroa. Ikastaro horri dagokionez, eskolak astelehenetik eguenera bitartean izango dira.



Hiru urtetik gorako umeak igeri egitera

Hiru urtetik gorako umeak igeri egiten ikas dezaten ikastaroa antolatu dute kirol etxean. Martitzenetik domekara bitartean izango dira eskolak. Astean ikastaroa arratsaldean izango bada ere, zapatua eta domeketan goizez emango dira eskolak, 10:00etan eta 11:00etan. Talde bakoitzean bost ume izango dira gutxienez. 2001ean, 2000n, 1999an eta 1998an jaiotako umeendako izango da ikastaroa.

Jon Díaz

Karakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETAJauregi
OkindegiaOtalora 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETA


PAGALDAI

Opari denda
LurrindegiaDurana 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14ARQUERO
CONSTRULAN S.L.

ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51
Basabe poligonoa 4, EQ-11 • ARETXABALETAZuzendaria:
Lyonel
ArqueroDekorazioa:
Soraya
Arquero

HURRETIK



Salva Rodriguez

Tabernarixe

Salva oin dala hiru urte hasi zan Arlutz tabernan kamarero. Baiñe, oin, aktore lanetan lelengo pausuek emun dittu, dokumental baten parte hartu dau eta. Hitler izen zan egun batzutan. Martxo inguruen emungo daue dokumentala ETBn.

Zelatan ba aktore lanetan?

Anaien bittartez enterau nitzen dokumentala egitten ebitzela, eta argazki bat bielketako esan eusten. Argazkixei bigotie ipiñi, eta, antza, neuri geraketan jaten hobien; eta horretxegatik elegidu ninduten.

Aurretik egin dozu antzezenpenik?

Ez, esperientzia barrixe izen da neretako. Oso gustora ibilli naz kamara aurrien lanien.

Noix eta nun izen zan grabaziñue?

Abendu erdialdien. Lelengo Donostian, Aieteko jauregixen, eta ostien Azpeitixen. Han, Hitlerrek Hendaian Francoi egin eutzen harrerie grabatu geuen.

Benetakue da bigotie?

Bai, neurie da. Aste bukaeran tabernara bigotiez fan nitzen, eta jentie harrittute geratu zan.

Azpeittiarrak be harrittuko zien.

Taberna batera traje eta guzti fan gitzen bazkaitten. Baiñe ez pentsau, harrittu biherrien jentiek barre egitten euen.

Ze izen zan grabaziñoko txarrena?

Serio jartie, barrezka buketetan geuen eta.

Ze sentidu zeuen Francoi eskue emunde?

Egoera haretan, ezebe. Benetakue izenda...

Errepetiduteko asmoik?

Dokumentalerako deittuz gero, bai. Telebisiñoko programetara ez nitzake aurkeztuko, eta pelikularen bat egittekotan, Halle Berry aktoriekin bakarrik.

Tabernan ala kamara aurrien gustorau lanien?

Kamaren aurrien kobretan danakin, hortara dedikauko nitzake. Baiñe esaten doten moduen, loterixie tokau arte tabernan ibilli naz lanien.

Ze da samurraue, tabernan aurpegi ona jartie ala antzeztie?

Antzeztie, duda barik. Gustoko ez dozun batei aurpegi ona jartie beti da gatxaue.

Karnabaletan Hitlerrez mozorrotuko zara?

Ez, batez be ez zalako erropa erosue.

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL


NIREBIDAIAHURA/ Jose Luis Zubiria, 'Txaparri'

Polonia / 2004ko otsaila eta 2005eko urtarrila

Batzuei lanak bidaiatzeko aukera eskaintzen die, eta hala da Jose Luis Zubiria *Txaparri*-ren kasuan. Joan den astelehenean Poloniara joan zen lan kontuengatik. Fagor Etxetresnetan egiten du lan aretxabaletarrak, eta bigarren aldiz joan da Poloniara. Iaz neguan izan zen bi hilabetez, eta aurten ere egingo ditu bi baino gehiago.

Polonia hegoaldean, Wrocław hirian du lantegia Fagorrek, eta hiri hori ondo ezagutzen du *Txaparri*-k. Kontatu digunez hiria handia da, eta izugarria da bertan egiten duen hotza ere. "800.000 lagun bizi dira Wrocław hirian, eta azkenaldian industria ari da indarra hartzen. Multinazional garrantzitsuenek lantegia ireki dute. Baina gazte asko ere ikusten da kalean, unibertsitate garrantzitsuak baitaude. Orain, neguan, sekulako hotza egiten du. Goizean -13 gradu izaten dira, eta gauean -20 markatzen du sarritan termometroak. Kaleak izoztuta egoten dira, eta ezin da edozein oinetakorekin ibili. Nik neuk ere, lehenengo aldiz joan nintzenean, bota handi batzuk erosi behar izan nituen, bestela erraza da kalean irrist egin eta jaustea".

Txaparri-ren berbetan, hiri ederra da Wrocław, erdialdea bereziki. "Erdialdean eraikin politak



"800.000 lagun bizi dira Wrocław hirian, eta azkenaldian industria ari da indarra hartzen"

"Orain, neguan, sekulako hotza egiten du. Goizean -13 gradu izaten dira, eta gauean -20."

na dela esan digu. *Txaparri*-ren azalpenak entzunda, Wrocław hiria ezagutzeko gogoia etorri zaigu, baina, aretxabaletarrak esan bezala, "hobe udaberrian joatea, orain hotz handiegia egiten baitu".

MARIA AGIRRE



Wrocław hirian eraikin ugari daude. Hori bai, sekulako hotza egiten du eta kaleak izoztuta egoten dira.




MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76




Durana kalea 18 1.ESK
ARETXABALETA

Tel.: 943 79 89 69
Sakelakoa: 656 74 81 61



LURRINDEGIA
OPARI DENDA

Mitarte 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETA



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68

Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko urtarrilaren 14a / 194. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Zuriñe Velez de Mendizabal • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxe: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Kiroldegian lanak egiten dabilta hirigintza hobekuntza planaren barruan

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Inbertsio handirik eskatzen ez duten lanak egitea da hirigintza hobekuntza planaren helburua. Herriko auzoetan konponketa txikiak egingo dituzte; baina dagoeneko batzuk amaituta daude. Orain, kiroldegiko oztopo arkitektonikoak kentzen dabilta.

Eskoriatzako Udalak hirigintza hobekuntza plana egitea aurreikusitua zuen 2004. urte hasieran. Zenbait hilabetetan herriko barrutietako hainbat auzokiderek bildu, eta haiek euren ekarpenak egin zituzten. Inbertsio handirik behar ez duten askotariko lanak egingo dituzte. Hasieran pentsatutako lan batzuk dagoeneko amaituta daudela eman dute aditzera Hirigintza Saileko arduradunek. Herriko zenbait toki hobetzeko lanen aurrekontua auzoka banatuta dago. Hala, San Pedro eta Intxaurtxuetara 56.036,86 euro, erdialdera 37.201,55 euro, Dorletara 14.482,87 euro eta Aranburuzabala eta Olaetara 23.871,02 euro bideratzea adostu zuen Udalak. Guztira, beraz, 131.592,30 euro erabiliko dituzte. Besteak beste, San Pedron baldo-



Ura legionella mikrobioetatik babesteko neurriak hartu eta hodiak aldatu dituzte.

sak aldatu, hilerrirako igieran eta irakasle eskolako zubian baranda berriak ezarri eta Aranburuzabalan markesina berria jarriko dute, plan horren arabera.

KIROLDEGIAN LANEAN DABILTA

Bestalde, Intxaurtxuetako kiroldegian egin beharreko lanak hasita daude jada. Legedi berria betetzeko hainbat aldagela egokitzen

dabilta elbarrientzako. Gainera, ura legionella mikrobioetatik babesteko hodiak aldatzen dabilta. Azkenik, kanposantuko lanak datozen egunotan hastea espero dute.

Auzoka banatu dituzte egitasmoko lanak; guztira 131.592,30 euroko aurrekontua

Kiroldegiko lanen eraginez ez da eraginik nabaritu eskaintzen diren zerbitzuetan

Datozen egunotan hasiko dituzte hilerrirako lanak, eta horma konpontzea dute helburu

Santa Ana proiektuari buruzko datu gehiago astelehenean

Z.V.M.

Osoko bilera egingo dute astelehenean 18:00etan udaletxean. Bertan, besteak beste, Santa Ana urbanizazio proiektua, Bake Epaille Titular kargua eta azken osoko bilkuran landu ez zituzten beste gai batzuk izango dituzte hizpide.

Datorren astelehenean, hilak 17, urteko lehenengo osoko bilkura egingo da udaletxeko aretoan. Bertan, askotariko gaiak landuko

dituztela eman du aditzera Juan Carlos Bengoa alkateak. "Hala ere, bi izango dira gai nagusiak: batetik, Santa Ana urbanizazio proiektuaren ebazpena; eta bestetik, 2005eko aurrekontuak izango ditugu hizpide".

Santa Anari buruzko erakusketa jarri zuten abenduaren 14an, eta urtarrilaren 6ra arte egon zen ikusgai. Jende gutxi gerturatu zela eman dute aditzera, baina bertaratutakoek proiektuaren helburuen berri izateko aukera izan zuten. Bi helburu nagusi ditu proiektuak, Udalaren arabera:

batetik, zerbitzu sareak berritu eta zorua jartzea; eta bestetik, oinezkoentzako toki gehiago jartzea. Hitzaldi bat ere eskaini zen, eta bertaratutakoen kezka nagusia aparkalekuei buruzkoa zen. Informazio gehiago emango dute asteleheneko bilkuran.

BAKE EPAILE TITULARRA

Beste gai batzuk ere landuko dituzte astelehenean. Horietariko bat izango da Bake Epaille Titularrari buruzkoa. Izan ere, nahiz eta orain hilabete batzuk lehiaketara irten zen, hutsik geratu da postua.



Oinezkoentzat toki gehiago jarri gura dute Santa Anan.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaletxea.....	943 71 44 07
Udal bulegoak.....	943 71 45 32
Udaltzaingoa.....	943 71 44 07
Euskaltegia.....	943 79 21 68
Kultura etxea.....	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea.....	943 71 31 36
Kirol etxea.....	943 71 53 28
Liburutegia.....	943 71 31 35
Luis Eceiza.....	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola.....	943 71 44 86
Almen.....	943 71 49 07
Museo Eskola.....	943 71 54 53
Axtroki.....	943 71 54 34
HUHEZI.....	943 71 41 57
Osakidetzak.....	943 71 44 52
Telesko.....	943 71 49 17
Taxiak.....	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde ospitalea (Arrasate).....	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara).....	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate).....	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati).....	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga).....	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz).....	945 23 20 30
PESA (Arrasate).....	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate).....	943 77 10 43
SOS Deiak.....	112

OHARRAK

MAITASUN MEZUEN LEHIAKETA

Bihar amaitzen da Bergarako Jardun euskara elkarteak antolatutako SMS bidezko maitasun mezuen lehiaketa. Interesatuak oraindik har dezakete parte. Pertsona bakoitzeko mezu bakarra onartuko dute antolatzaileek, eta euskaraz idatzitakoak izan beharko dute. Asmatutako testuak 605 71 24 69 telefonora edo kulturajardun@topagunea.com helbidera bidali beharko dira. Saria 90 euro izango da eta irakurle gazteak izango dira saria emateaz arduratuko direnak.

PARTIDUAK ASTEBURUAN

Bihar, zapatua, Eskoriatzako kiroldegian areto futbol eta saskibalo partiduak egongo dira ikusgai. 16:00etan Eskoriatza KE-SDCROKeta de Gopegi taldeek esku hartuko dute. Bestalde, 18:00etan Eskoriatza KE-Fonseca Bus de Pamplona taldeek saskibalo partidua jokatuko dute.

LEHENENGO ALDIZ ANTOLATU DUTE KANPAINA

Gabonetan etxea apaintzeko erabilitako zuhaitzak jaso zituzten

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Gaztetxoek izan dute zer egin Gabonetako jaiegunetan. Parkea, Olentzero eta hiru erregeak, marrazki lehiaketa... Dagoeneko herria normaltasunerara itzuli da, eta etxeek ere ohiko itxura hartu dute. Apaintzeko erabilitako zuhaitzak batu zituzten astelehenean.

Azken urteetan bezala, iragan diren Gabonetan ere marrazki lehiaketa antolatu zuen Udalak. Jende ugari hartu zuen parte, bai Eskoriatza eta baita gatzagakoek ere. Hiru eta hamaika urte arteko gazteek esku hartu zuten lehiaketan, eta adinaka banatuta, maila bakoitzeko saridun bana egon zen. Asier Matas (3urte), Beñat Armendariz (4 urte), Ainitze Viteri (5 urte), Asier Urzelai (6 urte), Josu Galvez (7 urte), Manex Lartzabal (8 urte), Karmele Varo (9 urte), Olatz Markaide (10 urte) eta Sergio del Pino (11 urte) izan ziren saridunak.

Bakoitzaren marrazkia koadro batean ipinita eta Gabonetako par-

kerako sarrera bana eman zitzaizen sari gisa. Hala ere, parte-hartzaile guztien lanak jaiegun horietan ikusgai egon ziren kiroldegian.

ZUHAITZAK JASOTZEKO KANPAINA

Etxeko apaingarriak kentzeko garaia ere iritsi da. Zuhaitzekin zer egin ez zekitenek astelehenean izan zuten zuhaitzok udaletxe aurrean uzteko aukera. Landu enpresak jaso zituen bertan utzitako pinuak. Lehenengo aldiz antolatu dute ekimena, eta oso jende gutxi hartu duela parte eman dute aditzera. Arduradunen esanetan, hiru zuhaitz soilik jaso zituzten, eta horietariko bakarrak zituen sustraiak. Birzikletze instalazioetara eramango dituztela esan dute, helburua zuhaitzak landatzea bazen ere.

Hiru zuhaitz jaso zituzten bakarrik; arrakasta gutxi izan zuen ekimenak



Goian, marrazki lehiaketako saridunak eta behean, batutako zuhaitzetako bat.

KIROLA/ Eski irteera kirol sailaren eskutik

Eski irteera asteburuan, eta Aste Santuan Andorrara joateko asmoa

Z.V.M.

Eskiatzeko aukera ematen du urtero kirol sailak. Eski denboraldian bi eguneko hiru irteera egingo dituzte, lehenengoa asteburu honetan. Bestalde, Aste Santuan bost eguneko irteera antolatu dute Andorrara. Lehenbailehen eman beharko dute izena interesatuak.

Neguan sartuta, eski denboraldiari ere hasiera ematen zaio. Azken urteetan ugaritu egon da

kanpoan etxea hartzen duten eskoriatzarren kopurua. Baina egun gutxi batzuk igarotzera joaten direnak ere asko dira. Hori kontuan hartuta, Eskoriatzatik ere egingo dira elurretara hainbat irteera.

Kirol sailak, adibidez, Aste Santurako irteera antolatu du. Asteburuko hiru irteera egingo dituzte eski denboraldian, lehenengoa, astebukaera honetan. Antolatzaileek aditzera eman dutenez, 05:00etan irtengo da autobusa. Bi eguneko bazkaria


norberak eraman beharko du; baina afaria eta gosaria ordainduta edukiko dute.

ANDORRARA ASTE SANTUAN

Baina bost eguneko irteera ere antolatu dute kirol saileko arduradunek. Andorrara joango dira martxoaren 24tik 28ra. Interesatuak dagoeneko eman dezakete izena. Horretarako, Namastera joan beharko dute lehenbailehen. Izan ere, autobus bakarra antolatu dute Andorrara joateko; 52 lagunentzako tokia dago.

“Gutxi gorabehera 330 euro kostako da bidaiaria”, adierazi dute antolatzaileek. Prezio horren barne hotela –gosaria eta afaria sartuta–, forfai eta autobusa egongo dira. Federatutakoek ez dute aseguru ordaindu beharko; beste, gehigarri bat gaineratuko zaie kostuari. Gehigarria ordaindu beharko dute baita ere materiala alokatu behar dutenek.

Gura duten modalitatea egiteko aukera izango dute. Baina lehen aldiz eskiatzen dutenek euren kabuz ikasi beharko dute.



Fagor Ederlan

Fagor Ederlan, S. Coop.

Torrebaso 7
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa
SPAIN
Tel: +34 943 719 000
Fax: +34 943 719 001



TOKI ALAI TABERNA

Karajiloetan espezializatua

Tel.: 943 71 47 29
ESKORIATZA

Gabonei agur esan diete gatzagarrek, jaiak giro politean ospatu ondoren

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Gabonak giro politean igaro dituzte Leintz Gatzagako lagunek. Gazte eta helduentzako egun bereziak izaten dira, eta ez dute aspertzeko betarik izaten herritarrek. Olentzerokin kantatzeko aukera dute gatzagarrek, eta gainera, hainbat irteera egin dituzte.

Gabonak primeran igaro dituzte Leintz Gatzagan. Herri txikia izan arren, izan dute zer egin herritarrek. Abenduaren 24an Olentzero iritsi zen herrira eta egunean koadrila polita elkartu zen baserriz baserri abesten joateko. Bitartean, Olentzerok aurtengo egutegiak saldu zituen egindako bisitetan eta dirua guraso elkarteari eman zion opari gisa.

Bestalde, kanpora ere egin zituzten irteerak. Gasteizera joan ziren eta, bide batez, Florida parkean jarritako jaiotza ikusi zuten. Bestalde, errege kabalgata Gatzagan egiten ez denez, urtarrilaren 5ean Aretxabaletara egin zuten txangoa guraso eta seme-alabek.



Abeslari finak direla erakutsi zuten gatzagarrek.

ASTELEHENEN GOIENKARIA



EDORTA ARANA

Jaiotza jartzen lagundu zuten txikiak.



ASTELEHENEN GOIENKARIA

Olentzerok egutegiak saldu zizkien bazerritako lagunei.

LABUR

Guraso elkartearen urteko lehenengo bilera gaur

Gatzagako guraso elkarte kideak gaur, egubakoitza, elkartuko dira euren egoitzan 18:30ean. Hasteko, Gabonei buruzko balorazioa egingo dute. Ondoren, baina, neguko ekintzak prestatzen hasiko dira; besteak beste, neguko irteera nora egin -iaz eskiatzen izan ziren- eta Inauterietan zer antolatu pentsatuko dutela eman du aditzera GURELe-ko idazkari Itsaso Eginok.

Bestalde, elkarte kideek herriko plazan jarri zuten jaiotza astelehenean, hilak 10, kendu zuten.

Otsailean aldatuko dute elkarte batzordea

Gatzagako elkarte bilera aurten otsailaren 13ra aurreratuko dela eman dute aditzera. Bertan, elkarte batzordeko kide berriak aukeratu dituzte.

Iaz, elkarte erre egin zen, eta horrek bilera aurreratzea ekarri zuen. Duela bi urtera arte San Jose egunean, martxoaren 19an, egiteko ohitura zuten.

Abenduaren 30ean ohiko osoko bilkura egin zuten

Abenduaren 30ean egin zuten Leintz Gatzagako Udaleko kideek urteko azken ohiko osoko bilkura; normalean egiten duten moduan, egunean egin zuten.

Askotariko gaiak landu zituzten bertan. Hasteko, gastu eta fakturak onartu zituzten. Bestalde, Lakitegi baserriko lanak amaitu direla eta, faktura guztiak aurkeztu direla baieztatu zen osoko bilkuran. Zaharberritze lanak egin dituzte bertan.

Eta azkenik, urri inguruan egiten den uso ehizaren ustia-pena guztiz ordaindu dutela berretsi zuten Leintz Gatzagako zinegotziek.

Ze barri?

Izan zaitez zeu ere berriemaile!

Zure taldearen, auzoaren, elkartearen... gaineko informazioa emateko, deitu gurera!

943 79 86 21



Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20

ENRIKE
MAZMELA
BOLINAGA
HORTZ
KLINIKA

Eduardo Gorosarri 3-1. esk.
Tel: 943 71 47 36
Eskoriatza

LENIZ, C.B. KONPONKETAK



TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA



Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza




EDURNE

ESTETIKA ESPEZIALIZATUKO ZENTRUA

Orain, Edurnen Laser bidezko depilazioa:

bizkorra, progresiboa eta segurua.
Kendu nahi ditugun ileak deuseztatzeko eraginkorra,
emakume eta gizonentzako.



Depitotal IPL
argi pulsatua

Aprobetxa ezazu aukera hau: %15 deskontua Urtarrila eta Otsailean!

Aranburuzabala 42 ESKORIATZA 943 71 51 54

35

€

Egin zaitez harpidedun
eta 2005ean
etxean jasoko duzu
Astleheneko Goienkaria.
Dei bat egin eta kितto!



Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astlehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astlehenean, aste bukaera osoa

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada
giro!

Mitartegarai



Aretxabaleta
Tel.: 943 79 17 51

AKEITA
Taberna

Pintxoak eta ogitartekoak

Santa Ana 23
Tel.: 943 71 50 94
ESKORIATZA



Matikua jatetxea

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

BASABE



Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 79 91 84

HAIZEA



Kafetegia eta taberna

Mitarte z/g • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 60

ZARAIA
taberna

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 95

HIRUSTA JATETXEA

Zatoz gure sukaldean ezagutzera



Ilargi plaza 4. Tel. : 943 79 06 57

Mirrentxu



Hidalga 10
Eskoriatza. 943 71 41 67

EZKUTU
TABERNA



Zatoz gure musikaz gozatzera

Mitarte 9 ARETXABALETA Tel: 943 79 92 01

Taberna Berri



gestemenuek
egun zure aukera

Durana 26, ARETXABALETA. 943 79 20 67

TABERNA

ARLUTZ

Gustuko musika

Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

Dorleta
taberna

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8
ARETXABALETA
Tel.943 79 94 15

ORLY

Herriko plaza
943 79 09 33
ARETXABALETA

LAGUNAK



DASTALEKU
Tel. 943 71 40 63

Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8. ESKORIATZA

Aretz

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Hanburesak
Pizzak
Oilaskoak eta
paellak eramateko

